

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4408

AGINDUA, 2022ko urriaren 6koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita Saileko lanpostu bat –Industria Administrazioako Arabako Lurralde Ordezkaritzako Lurralde Ordezkaria– izendapen askez betetzeko deialdia.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.c) artikuluan agindutakoaren arabera eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko ekainaren 6ko Aginduaren laugarren oinarrian agindutakoaren arabera (2022ko ekainaren 22ko EHAA), hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Pedro Rodriguez Diaz jauna izendatzea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailearen Industria Administrazioako Arabako Lurralde Ordezkaritzako Lurralde Ordezkari (kodea: 511786; dotazioa: 10; destino-osagarriaren maila: 29; berariazko osagarria: 0-A).

Bigarrena.– Izendapen horrek 2022ko urriaren 26tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 6a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.